



## **2026KO AURREKONTUA BETEARAZTEKO UDAL ARAUA**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/ 2003 Foru Arauan agindutakoaren arabera, Aurrekontu Orokorra Betearazteko Arau hau ezarri da **2026**ko ekitaldirako:

### **1. ARTIKULUA.- OROKORRA OSATZEN DUTEN AURREKONTUAK**

Udal Erakundearen aurrekontuak osatzen du erakunde honen Aurrekontu Orokorra. Horren diru-sarrerak eta gastuak, guztira, **HOGEITA HAMABOST MILIOI BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI MILA ETA BOSTEHUN EURO (35.988.500 €)** dira. Hortaz, hasiera batean behintzat ez du defizitik.

### **2. ARTIKULUA – AURREKONTUAREN EGITURA.**

Aurrekontu honi uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretuaren 2. Eranskinean aurreikusitako egitura ekonomikoa aplikatuko zaio (PROGRAMEN ARABERAKOA-EKONOMIKOA).

Bi sailkapen horiek, bat eginik, zehaztuko dituzte aurrekontuko partidak, programa mailan eta azpikontzeptu mailan.

### **3. ARTIKULUA – AURREKONTU KREDITUAK**

Diru-sarreren gordailuak, baliabideen gutxi gorabeherako kalkulua dira, eta inolako mugarik gabe onar daitezke.

Gastuetarako kredituak aurrekontuan baimendutako xede zehatzerako edo lege bidez aldatutako xedeetarako besterik ez dira erabiliko.

Gastuetarako kredituek izaera mugatzailea eta loteslea dute. Hauexek dira dauden lotura mailak:

- Programa eta azpikontzeptua partida hauetarako:
  - 2319 - 481.01 Garapenerako lankidetzaren Garapenerako lankidetzarako dirulaguntzak
  - 2411- 131/160 Enplegu planeko langileak.
  - 9291- 500.00 Gastu zehaztugabeak eta aurreikusi gabeak. Kreditu globala
  
- Programa eta kapitulua (inbertsioen 6. kapituluko gastuetan salbu) ondoko programetarako:
  - 9201 – Zerbitzu orokorrak.
  - 9202 – Eraikin publikoak.
  
- Programa eta kapitulua ondoko programetarako:
  - 9203 – Informatika.



- Gastu-politika eta kapitulua, inbertsioen 6. kapituluari dagozkion gastuetan, honako gastu-politika hauetarako:
  - 15 – Etxebizitza eta hirigintza.
- Programa eta artikulua, inbertsioen 6. kapituluko gastuei dagokienean.
- Programa taldea eta artikulua, interes eta aktibo finantzarioen aldaketei dagokien gastuetan.
- Programa taldea eta kapitulua, ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketako gastuei, gastu arrunt eta kapital gastuengatiko transferentzia eta dirulaguntzei eta pasibo finantzarioen aldaketei dagokienez. 931 eta 932, 132 eta 135, 323 eta 326, 151 eta 153 programa taldeak gastu politikari dagokionean lotuta egongo dira.
- Kapitulua, langileen gastuei dagokienez.

#### **4. ARTIKULUA – KONPROMISO KREDITUAK.**

Konpromiso-kredituen egoera, ekitaldian konprometitu ahal diren urte anitzeko gastuek osatzen dute. Horien onarpenak baimendu egingo ditu horiek gauzatzea, ezarritako baldintzetan.

Konpromiso-kredituen egoera-orriak bakoitzaren zenbateko osoa eta burutzeko aurreikusten diren ekitaldiak adieraziko ditu.

Konpromiso-kredituen zenbateko metatua Aurrekontuan aipatzen den erakundearen likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arruntan ziozko baliabideen %25 izango da gehienez ere, 10/2003 Foru Arauaren 6.3. e) artikuluan eskatutako azterlanetik muga txikiagoa sortu ezean. Konpromiso-kredituak kanpoko finantzaketa baldin badute, aurreko paragrafoan jasota dauden mugen arabera finantzaketaren zenbatekoa ez da gastu bezala hartuko.

Aurrekontuek ezin dute konpromiso-krediturik bildu, baldin eta beraien betearazpena ekitaldian bertan edo hurrengoan hasten ez bada.

Ez dira konpromiso-kredituen barruan sartuko langileria, finantza-zama, zorpetzearen ondoriozko amortizazio, ondasun higiezin errentamendu eta ezta izaera iraunkor eta segidako traktukoak ere.

Era berean, Udalbatzako Osoko Bilkurak ekitaldian zehar konpromiso kreditu berriak sortzea erabaki dezake edota lehendik dagoena aldatzea 10/2003 Foru Arauko 22.4 artikuluan ezarritako mugekin. Horretarako, eta zenbateko berdinarekingatik konpromiso kredituak urrituz gehikuntza egiten denetan izan ezik, konpromiso kreditu berriei aurre egiteko udal finantza baliabide nahikoak dauden aldeztatik aurretik aztertu beharko da. Hau onartzeko 10/2003 Foru Arauko 15, 17 eta 18. art.etan Aurrekontu Orokorrentzat ezarritako informazio, erreklamazio eta publizitateari buruzko arauak aplikatu ahal izango dira.



## 5. ARTIKULUA – GEHITU DAITEZKEEN KREDITUAK.

Gehitu daitezkeen kredituak ordainketak egiteko kredituak dira; hasiera batean izaera mugatua daukate, baina beren zenbatekoa handitu edo gehitu daiteke, ezarrita dauden edo gerora ezarri ahal diren arau-formalitateak bete ondoren, ondokoen arabera:

- a) Horren inguruan indarrean dauden xedapenen arabera, dagozkien kredituen eragin zuzena jaso duten diru-sarreraren benetako bilketa.
- b) Kreditu orokorraren erabilerak.

Aurrekontuetako gastuen egoera-orrian, gehitu daitezkeen kreditutzat hartzen ditugun ordainketa-kredituak honako hauek dira:

<u>Partida</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Gehieneko Zenbatekoa</u>	<u>I. afektatua.</u>
2312-480.00	Trans. Gizar larrial	Dirulag muga	410.02 Eusko Jaurlaritza
2314-227.34	3. Adinekoen Eguneko Zen	Dirulag muga	420.05 Aldundia
2313-227.35	Eguneko Zentro anizt funtz	Dirulag muga	420.03 Aldundia
3342-226.06	Aretoa. Jarduera sozio	Dirulag muga	340.13
9321-227.09	Dirubilketa zerbitzua	% bildutako nagusiarekiko	Oharra (1)

Oharra (1): *Dirubilketa zerbitzuak bildutako diru-sarrera motari dagokion partida*

2312-480.00	Gizarte larrialdi	Transferenciak familiei	Oharra (2)
-------------	-------------------	-------------------------	------------

Oharra (2): *380.00 Itxitako ekitaldietako gizarte larrialdietako laguntzengatik itzuli edo konpentsatutako zenbatekoak*

15XX-2XX.XX	Mantenimendu gastuak	Aseg. kalte ord. zenbatekoa	399.04 Imprevistos
-------------	----------------------	-----------------------------	--------------------

Gehitzeko espedientean Kontu-hartzailearen egiaztagiria egon beharko da, eta hortxe egiaztatuta utziko da diru-sarrera afektatuen kontzeptuan egon dela benetako diru-bilketa.

Kredituak gehitzeko erabakia Udalburuak hartuko du, eta horren berri emango dio Osoko Bilkurari, egiten den hurrengo Osoko Bilkuran.

Gehitu daitezkeen kredituak izango dira, dagozkien aurrekontuetako gastuen egoera-orrian beren-beregi hala agertu gabe eta inolako finantzazio bereziren beharrik gabe, langileen gizarte-aurreikuspen arautegiari dagozkion obligazioak ordaintzeko kredituak, kasu bakoitzean aplika daitezkeen xedapenen arabera onartzen eta likidatzen diren obligazioetatik sortutako zenbatekoan, haren kontribuzio araubidean gertatu diren aldarazpenen ondorioz.



## 6. ARTIKULUA – KREDITUAK ALDATZEKO ARAUBIDEA.

Aurrekontu nagusia osatzen duten aurrekontuetako sarrera eta gastu-orriak eta aurrekontuaren gaineko gainontzeko baimenak aldatu ahal izango dira, 10/2003 Foru Arauan eta Udal Arau honetan aurreikusitakoaren arabera eta Udal Arau honetan ezarritakoaren arabera.

### A) Kreditu Transferentziak

Kreditu transferentziak aurrekontuaren aldaketak dira, haien zenbateko osoa aldatu gabe, kreditu baten zenbateko osoa edo haren zati bat, lotura juridiko maila desberdinei buruzko aurrekontu partiden artean eramaten denean.

Kreditu transferentziak egiteko, batzuetan partida berriak sortu beharko dira aurrekontuan.

#### Horrelakoak onartzeko organo eskuduna:

Programa talde baten barruan transferentziak egitea Udalburuari dagokio. Dena dela, transferentziak eginda gutxitu egingo badira inbertsio errealerako aurreikusitako gordailuak, orduan Osoko Bilkurak onartu beharko ditu.

Programa funtzional desberdinen artean transferentziak egiteko baimena Udalburuak emango du, aldaketa guztiek, batuta, dirua ateratzen den eta sartzen den programetan horien hasierako gordailuen % 25 gainditzen ez badute, eta inbertsio errealerako aurreikusitako gordailuak gutxitzen ez badituzte.

Gainontzeko kasuetan, Osoko Bilkuraren ardurapekoa izango da.

Kreditu-transferentziak 10/2003 Foru Arauko 29. artikulua ezarritako mugen mende daude.

#### Tramitazioa:

Ogasun zinegotzi ordezkariaren edo alkate-udalburuaren proposamen arrazoitua, gehitu nahi den programaren organo kudeatzailearen proposamenaren harira, hala badagokio.

Udalburuak baimendutako transferentzien kasuan, lehenengo Kontu-hartzailearen txostena eduki beharko da gutxitu nahi d(ir)en kreditua(k) erabilgarri dagoen /dauden jakiteko, eta egonez gero, transferentzia onartzeko erabakia hartu ondoren, gauzatu egingo da eta gero horren berri emango zaio Osoko Bilkurari, aurrerantzean egiten duen lehen batzarrean.

Osoko Bilkurak baimendutako transferentzien kasuan, gainera Ogasun Batzordearen irizpena ere beharko da.



## B) Kreditu gaikuntza

Dagokion gastuen egoera-orria aurrekontuko kreditu bihur daitezke ekitaldian lortutako diru-sarrerak, ez daudenak aurreikusita Udal Erakundearen Aurrekontuko diru-sarreraren egoera-orrietan, edo diru-sarrera horien zenbatekoa aurrekontuetan aurreikusitakoa baino gehiago denean.

Kreditu berriak gaitzeko edo lehendik daudenak zabaltzeko kredituak dira honako eragiketa hauen ondoriozkoak.

- a) Pertsona naturalen edo juridikoen ekarpenak edo ekarpenetarako konpromiso sendoak, Toki Erakundearekin batera, beren izaera dela eta, haien helburuen edo xedeen barruan dauden gastuak finantzatu ahal izateko.
- b) Ondare-ondasunak besterentzea.
- c) Zerbitzuak ematea.
- d) Hala bada, beste herri erakunde batzuen aurrekontu orokorren pentzura jasotzen diren edo pertsona edo erakunde pribatuetatik datozen beste ekarpen batzuk.

Kreditua gaitzeko nahitaezko baldintzak aipatutako 31. artikuluko 3. idatz-zatian ageri dira.

Lortutako diru-sarrerak helburu jakina dutenean edo gehitu ahal diren kredituak finantzatzen badituzte, gaikuntza Udalburuak baimenduko du, eta gainerako kasuetan, berriz, eskumena Osoko Bilkurarena izango da. Udalburuaren onarpenen berri emango da Udalaren Osoko Bilkurak egingo duen lehenengo batzarrean.

Hala ere, beharrezko da beti Kontu-hartzailearen txostena eta bertan aipatu beharko da baliabide jakina, aintzatetsitako eskubidea edo benetan jasotako dirua sartzeko konpromisoa dagoela, baita gastuen aurrekontuan beharrezko partidak ezartzeko eta kreditua gaitzeko ere diru-sarreraren ondorioz.

## C) Kredituak eranstea

Udal Erakundearen aurrekontuan sartu ahal izango dira aurreko ekitaldiko ordainketa-kredituak, onartutako obligazioak betetzeko afektaturik ez badaude eta baldintza hauetariko bat betetzen baldin badute:

- 1.- Baimendutako tranferentzia jaso duten kredituak eta kreditu gehigarriak, biak ere, ekitaldiko azken hiruhilekoan emandakoak.
- 2- Erabakitako gastuei dagozkien kredituak, eta, arrazoi justifikatuak direla eta, obligaziorik hartu ez dutenak.



3.- Gaitutako kredituak eta loturiko diru-sarrerari dagozkien beste kreditu batzuk.

4.- Kapital eragiketen ondoriozko kredituak.

Eragindako diru-sarrerak dituzten kreditu gerakinak derrigorrean sartu beharko dira, hala ere, salbuespena izango da gastua egiten jarraitu edo berau egiten hasteari uzten bazaio, guztiz edo zati batean, edo berau gauzatzea ezinezkoa bada.

Sartutako kredituak, jatorrizko aurrekontuan izango luketen helburu berarekin sartuko dira.

Kredituen gerakinak sartuko dira baldin eta horretarako behar beste finantza baliabide geratzen bada.

Sartutako kredituak sarrera hori gertatzen den ekitaldiaren barruan burutu beharko dira, eta ez da sarrera gehiagorik izango, baldin eta helburu jakina duten diru-sarrerekin finantzatzen diren kapital eragiketak ez badira.

Sar daitezkeen kredituak, ekainaren 30ean dagozkien aurrekontuetan sartu ez badira, deuseztatu egingo dira.

Kredituak sartzeko eskumena Udalburuak izango du, Kontu-hartzaitzaren txostena jaso eta gero. Horren berri emango zaio Osoko Bilkurari, aurrerantzean egiten duen lehen batzarrean.

#### D) Baliogabetze bajak

Baliogabetze baja, aurrekontuko partida bati atxikitako kredituan erabateko murrizpena edo murrizpen partziala eragingo duen gastuen aurrekontuaren aldarazpenari deritzo.

Baliogabetze baja eman ahal zaio Aurrekontuko edozein kredituri, kreditu baliagarriaren saldoari dagokion zenbatekoan, baldin eta zuzkidura hori murrizgarria edo deuseztagarria bada, haren zerbitzuan kalterik eragin gabe.

Aurreikusten diren kredituen baliogabetze baja Udalbatzako Osoko Bilkurak erabakiko du.

#### E) Kreditu gehigarriak

Gordailurik ez duen edo, izatekotan ez nahikoa eta hedaezina den ordainketa krediturik gabeko gasturen bat egin behar baldin bada, eta aurreko idatz-zatietan aurreikusten den aldarazpen arautegiaren bitartez hura estaltzea ezinezkoa baldin bada, kreditu gehigarria emateko tramitea burutuko da.

Udalburuaren agindu bidez emango zaie hasiera kreditu gehigarrien espedientei.



Kontu-hartzaitzako txostena eginda dagoenean tramitatuko da, eta gutxienez agiri hauek egon beharko dira:

- 1.- Gastua beharrezkoa edo premiazkoa dela dioen justifikazioa, Udalburuaren pentzura.
- 2.- Proposatutako gastua finantzatuko duen baliabidearen zehaztapena, eta handitu behar den aurrekontuko partidaren zehaztapena.

Kreditu gehigarriari buruzko espedientea, Kontu-hartzaitzak horri buruzko txostena egin eta Ogasun Batzordeak irizpena eman eta gero, Udalbatzako Osoko Bilkurak onetsiko du, eta horri Aurrekontu Nagusiaren informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko arauak aplikatuko zaizkio, 10/2003 Foru Aruaren 15, 17 eta 18. artikuluetan biltzen den bezala.

Alkate-Udalburuari dagokio, lehen adierazitako tramiteak bete ondoren (Ogasun Batzordeak eman beharreko irizpena izan ezik), kreditu gehigarriak onartzea, urte osoan metatuta aurrekontuaren %5etik gorakoak ez badira. Kasu horretan ez dira aplikagarriak izango Aurrekontuaren informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko arauak, eta Osoko Bilkurari honen berri emango zaio egiten duen hurrengo batzarrean.

## **7 ARTIKULUA – DIRU-SARREREN AURREKONTUAK BETEARAZTEKO ERAGIKETAK.**

Aurrekontu-ekitaldian sartuko dira bertan onartzen diren eskubideak, ekitaldi batetik edo beste batetik badatoz ere.

Diru-sarreraren aurrekontua honako fase hauetan kudeatuko da:

- a) Diru-sarrera onartzea.
- b) Diru-sarrera kobratzea.

Gastuei loturiko sarreraren kasuan, diru-sarreraren konpromisoko fasea ere sar daiteke zerrenda horretan.

## **8. ARTIKULUA -GASTUEN AURREKONTUA BETEARAZTEKO ERAGIKETAK.**

Gastuen aurrekontua honeko fase hauetan kudeatuko da:

- A Fasea: Gastua baimentzea.
- D Fasea: . Gastua prestatzea.
- O Fasea: Obligazioa hartzea.
- P Fasea: Ordainketa agintzea.
- R Fasea: Ordainketa egitea.



## 9. ARTIKULUA - GASTUAK ORDAINTZEA.

Erakunde Aurrekontuko gastuen egoera-orriaren kredituen pentzura, gastuak baimentzea eta erabiltzea honako hauei dagokie:

Udalburuari (TAOLren 21.1 artikulua), SPKLren 2. xedapen gehigarriaren arabera:

- Langileria gastuak: produktibitate osagarria, eskersariak eta kalte ordainak zerbitzuagatik.
- Obra, hornidura, zerbitzu, obra emakida, zerbitzu emakida kontratuak edo administrazio kontratu bereziak, Aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko hamarra gainditzen ez dutenean haren ustezko balioek edo hainbat urtetarako direnek sei milioi euro gainditzen ez dituztenean (lau urte baino gehiagorako ez badira), urtekoen zenbateko metatuak adierazitako portzentajea edo zenbatekoa gainditzen ez duenean.
- Ondasun higiezinak eta ondare legeria bete behar duten eskubideak erosteko kontratu pribatuak, haien balioa aurrekontuaren baliabide arrunten % 10etik gorakoa edo hiru milioi eurotik gorakoa ez bada.
- Hondamendi edo zorigaitz publikoetan, beharrezkoak direnetarako.
- Legeek beretzat ezartzen dituztenak eta Estatuko edo Autonomia Erkidegoetako Legeek Udalbatzari berari, ez bere sail ezberdinei, ezartzen dizkieten eskumenen arabera gastuetarako.

Osoko Bilkurari (TAOLren 22.2 artikulua), SPKLren 2. xedapen gehigarriaren arabera:

- 1.- Lansari finko eta aldizkakozen zenbatekoa zehaztea eta izendapena Produktibitateko Osagarriaren Aurrekontuan, eta baita ere, banaketarako irizpideak, eskersariak eta kalteordainak zerbitzua dela eta.
- 2.- Aurreko idatz-zatian adierazitako mugak gainditzen dituzten gastuetarako.
- 3.- Bere eskumeneko gastuetarako.
- 4.- Kredituak judizioz kanpo aintzatesteko, aurrekontuan horretarako zuzkidurarik ez dagoenean, bai eta kreditu-eragiketak ituntzea.

Halaber, Udalburuak berak izendatzen dituen zinegotzien esku utzi ahal izango du gastuak egiteko eskumena, Udalburuak berak egin dezakeen gastu kopururako muga betez.



## 10. ARTIKULUA- GASTUA BERTEARAZTEKO ARAU BEREZIAK.

1.- Aurrekontuan gordailu nahikoa badago eta gastua egitea arauzko eran onartuta badago, Administrazio-egintza bakar batean bildu ahal izango dira zenbait gastu-fase, eragiketa arrunt izaera duten ondorengo kasuetan:

- a) Langileen nominak, produktibitate-osagarriak, eskersariak, kalte-ordainak, pentsioak, langile finko eta aldi baterakoentzako bestelako ordainsariak, prestakuntza gastuak, eta Udalak Gizarte Segurantzak eta Elkarkidetzarako ordaintzen dituen kuotak eta langileei itzul dakizkiekeen aurrerakinak.
- b) Zinegotzien eta Erakundeko langileen bidai eta dietengatiko gastuak.
- c) Udalbatzako kideentzako kalte-ordainetarako araubidetik eratorritako gastuak.
- d) Erregaiak, iragarkiak, prokuradoreak, mezularitza, ibilgailuak konpontzeko gastuak, informatikako mantentze-lanen gastu txikiak eta hornidura txikiak.
- e) Hitzartutako maileguen interesak eta amortizazioak, zerga biltzaileentzako kobratzeagatiko sariak, kanonak, kontribuzioak eta tasak.
- f) Dirulaguntzak pertsona natural edo juridikoentzat, aurrekontuan gordailua egonik.
- g) Kreditu eta baliozkotze estrajudizialak aintzatestea.
- h) Justifikatu beharreko ordainketak.
- i) Kutxa finkoko aurrerakinen aurrekontu-aplikazioa.
- j) Eta, orokorrean, 600,00 € gainditzen ez dituen zenbatekoak.

### 2.- Kontratu txikiak:

Kontratu txikietan, espedientea izapidetzeko kontratazio organoaren txostena beharko da, kontratuaren beharrezana arrazoituz. Era berean, gastua onartu egin beharko da eta dagokion faktura gehitu.

Obren kontratu txikian obren aurrekontua erantsi beharko da, berariazko arauak dagokion proiektua eskatzeko kalterik gabe. 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 235. art.ak aipatzen duen gainbegiratze txostena eskatu beharko da, lanen egonkortasun, segurtasun edo estankotasunari eragiten zaionean.

Espedientean justifikatu egingo da kontratuaren xedea ez dela aldatzen, kontratazioko arau orokorrak aplikatzea ekiditeko.



Kontratu txikiak SPKLren 63.4 art.an aurreikusitako moduan argitaratuko dira.

Kontratu mota hauek "Kontratu txikia/gastu proposamena" espediente motaren bidez izapidetuko dira, edozein kasutan zenbatekoa 600,00 baino handiagoa denean. Kontratazio organoak espedienteari hasiera emango dio eginbide batekin. Han gastuaren beharizanaren berri emango da eta kontratuaren arduradun teknikoak izenpetutako gastuaren definizio bat izango du. Aipatu proposamenak kontabilitateko agiria erantsita izan beharko du, AD fasekoa hain zuzen ere. Ondoren, alkateak edo, hala badagokio, saileko zinegotzi ordezkariak, gastua onartuko du, administrazio ebazpen bidez.

### 3.- Kontratazio espedienteen aurreiazko tramitazioa:

Araudiaren arabera aurreiazko kontratazio bezala has daitezkeen gastu espedienteak, Udalarentzat betebeharr ekonomikoak sortzen badituzte, gauzatu aurreko ekitaldian hasi ahal izango dira, ondoko baldintzetariko bat ematen bada:

- a) Aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa egotea.
- b) Aurrekontuan kreditu egoki eta nahiko egotea aurrekontuen proiektuan hurrengo ekitaldirako.
- c) Osoko Bilkurak erabakia hartu eta handik ondorioztatzen bada kreditua hurrengo ekitaldiko aurrekontuan sartu beharra.

Kreditu-atxikipenaren egiaztagiria, aurreko atalean adierazitako baldintzetarikoren bat eta zenbatekoa dagoela egiaztatzen duen kontu-hartzailezako organoaren egiaztagiriarengatik ordezkatu da. Egiaztagiri hori indarrrik gabe geldituko da abenduaren 31n ez badago gastua baimentzeko fasean.

Aurreiaz izapidetzen diren gastu espedienteetan gehienez ere gastu xedapenaren fasera heldu ahal izango da eta beharrezkoa izango da administrazio baldintza berezien edo diru-laguntzak emateko oinarrietan eta adjudikatzeko edo emateko ebazpenetan, kontratuaren adjudikazioa edo diru-laguntza ematea, dagokion ekitaldian hark sortutako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintza etengarriean gelditzen dela.

### 4.- Ibilgetua erregistratu eta baloratzeko arauak:

Ondare kontabilitatera pasatzeko, ondoko irizpideak jarraituko dira: Udalak gastu kontuetan erregistratzen ditu 700,00 euro edo gutxiagoko inbertsioak, berdin delarik eskuratutako ondasunak ibilgetutzat hartzeko baldintzak betetzen dituen edo ez.

## **11. ARTIKULUA.- OBLIGAZIOAK AINTZATETSI EDO LIKIDATZEA.**

Udalbatzako Alkate-Udalburuari dagokio legez hartutako gastu konpromisoetatik eratorritako obligazioak onartzea, ordura arte Udalbatzako kideei edo Gobernu Batzordeari eskuordetutakoa eragotzi gabe.



Obligazioak aintzatetsi aurretik, dagokion sailaren aurrean egiaztatu beharko da, agiriak aurkeztuta, prestazioa eman dela edo hartzekodunak eskubidea daukala, bere garaian gastua baimendu edo konprometitu zuten erabakien arabera. Era berean, modu materialean egiaztatu dela, hala dagokionean, obra, zerbitzua, hornidura edo gastua egin dela eta konformea dela.

Honetarako, ezinbestekoa izango da jatorrizko egiaztapen edo faktura aurkeztea, hornitzaileak bermatuta. Ziurtapen edo fakturan agertuko da "hartuta eta ados" edo "emandako zerbitzuarekin ados", dagokion alor edota teknikariaren sinaduraz.

#### Faktura elektronikoa:

Sektore Publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontularitzako erregistroa sortzen duen abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 9. artikuluan ezarritakoa betez, baita Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikulua ere, pertsona juridikotzat hartzen diren kontratistek betebeharra izango dute faktura elektronikoa Amorebieta-Etxanoko Udalerako Faktura Elektronikoen Sarrerako Puntu Orokorraren bitartez aurkezteko (IFZ P4800300H), DIR3 kodeei erreferentzia egingez (kontabilitate bulegoa, organo kudeatzailea eta izapidetze unitateak).

Amorebieta-Etxanoko Udala FACe atariari atxikita dagoenez, fakturak atari horretan aurkeztu behar dira (<https://face.gob.es/>).

Betebeharrak pertsona juridiko guztiak hartzen ditu, haien sozietate-formaren eta fakturaren zenbatekoaren kalterik gabe, Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Formatu elektronikoan jaulkitzeko betebeharretik salbuetsita daude hornitzaileek Administrazio honen kanpoko zerbitzuei jaulkitako fakturak, harik eta horiek formatu elektronikoan jasotzeko bitarteko eta sistema egokiak izan arte.

## **12. ARTIKULUA.- ORDAINKETA-AGINDUA**

Udalburuari dagokio aurretiaz aintzatetsitako obligazioen ordainketak agintzea.

Ordainketa-aginduak presidentek ezartzen dituen fondoerako planari egokitu beharko zaizkio, eta lehentasuna izango dute, edonola ere, interesak eta zor publikoko kapitala ordaintzeak eta hauen ondoren, langileen gastuek eta aurreko ekitaldietan hartutako obligazioek.

Diruzaintzaren aurkako ordainketa-aginduak aldeztu aurretik aintzatetsitako eta likidatutako obligazioei erreferentzia eginez bakarrik eman ahal izango dira, "justifikatu beharreko" ordainketen, kutxa finkoko aurrerakinen eta aurrekontuz kanpoko eragiketen kasuan izan ezik.



Ordainketak egiteko sistema orokorra banku bidezko transferentziak izango dira.

#### Udal Diruzaintzako kontuak

1. Udal Diruzaintzako kontuak dira Amorebieta-Etxanoko Udalak zabalik dituen guztiak.
2. Udal Diruzaintzak ondoko kontu motekin lan egin ahal izango du:
  - a) Sarrera eta ordainketen kontu operatiboak.
  - b) Dirubilketako kontu murriztuak.
  - c) Ordainketen kontu murriztuak.
  - d) Diruzaintza geldikinak jartzeko finantza kontuak

Kontu operatibo bateko funtsak xedatzeko, hiru giltzarien sinadura amankomunatu beharrezkoa izango da: ordainketak agintzen dituena, diruzaina eta kontu-hartzailea. Aurrekoaren kaltetan gabe, Amorebieta-Etxanoko Udaleko Diruzaintzako barne mugimenduak direnean, banku erakunde bereko udalaren bi konturen artean gertatzen badira, nahikoa izango da hiru giltzarietatik batek sinatzea.

Korporazioko presidenteari dagokio, hala badagokio, eguneroko eragiketen funtsetarako eskudirukutzak izateko baimena ematea, baita kasu zehatz bakoitzean horien funtzionaltasuna zehaztea eta kudeaketa eta mugimenduaren arduraduna (k) izendatzea ere. Eskudirukutxek arauz ezarritako mugak bete beharko dituzte.

### **13. ARTIKULUA- JUSTIFIKATU BEHARREKO ORDAINKETA-AGINDUAK.**

Ematen diren unean egiaztagiria erakustea ezinezkoa denean, ordainketarako aginduak "justifikatu beharrekoak" izango dira, eta aurrekontuetan dagozkien kredituei aplikatuko zaizkie. Arau honetan ezarritako gastuen kudeaketako prozeduren arabera tramitatu beharko dira.

Justifikatu beharreko ordaintzeko aginduak emango dira berehala ordaindu beharreko zerbait eskuratu denean edota berehala ordaindu beharreko zerbitzu bat dagoenean eta ez bada posible egin aurretik gastu egiaztagiria izatea.

Justifikatu beharreko gastuak aurrekontuko gastuen egoera-orriko 2. eta 6. kapituluaren eta ekonomikoan 162.01an sartuta dauden kontzeptuei aplikatuko zaizkie. Eman ziren xederako erabili beharko dira.

Justifikatu behar den ordainketaren zenbatekoa gehienez ere 1.600,00 € izango da.



Ordainketarako agindu horiek jasotzen dituzten sailtako arduradunek hiru hilabeteko epea dute jasotako kopuruen aplikazioa justifikatzeko eta betiere, ekitaldia itxi aurretik; halaber, indarrean dagoen arautegiak ezartzen duen erantzukizun-araubidearen mende daude. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako epeetan, Diruzaintzan aurkeztu beharko dituzte ordainketa justifikatzen duten faktura edo agiri originalak, eta "jasota eta ados" edo "emandako zerbitzuarekin ados" jarriko zaie, dagokion arloko arduradunaren edo teknikariaren sinadurarekin, eta inbertitu ez diren zenbatekoak itzuli beharko dituzte, halakorik balego.

Justifikatzeko dauden fondoak dauzkaten hartzaileei ezin izango zaizkie justifikatu beharreko ordainketa-agiri gehiago egin, aurrekontuetako kontzeptu berberetan oinarrituta.

#### 14. ARTIKULUA- KUTXA FINKOKO AURRERAKINAK.

Aldizkako gastuei edo gastu errepikakorrei berehala erantzuteko, "justifikatu beharreko" funts libratuak kutxa finkoko aurrerakintzat hartu ahal izango dira, eta 500,00 eurotik beherako gastuetarako aurrekontu-izaerarik gabeko funts-horniduratzat hartuko dira.

Aipaturiko aurrerakina Alkatetzaren ebazpen bidez igorriko da, Udalbatzako diruzainaren alde arau honetan adierazitako zenbatekoen eta kontzeptuen arabera, eta gauzatu egingo da aurretik harentzako kreditua atxikita, egotzi ahal deneko aurrekontuko partidan.

Udal Aurrekontuan kutxa finkoko aurrerakinen araubidea ondoren aipatzen diren kontzeptu eta kopuruen arabera izango da:

Partida	Izena	Zenbatekoa
9121-231.00	Alkatetza eta gob org. Dietak, lokomozioa eta joan-etorriak	500,00 €
9203-215.00	Informatika. Info. Prozesuetarako ekipamenduaren mantentzea	1.000,00 €
9201-222.02	Zerbitzu Orokorrak. Posta komunikazioak	500,00 €
9201-226.99	Zerbitzu Orokorrak. Bestelako hainbat gastu	600,00 €
9201-230.00	Zerbitzu Orokorrak. Dietak, lokom, joan-etorriak	200,00 €
1322-221.99	Herritarren segurtasuna. Bestelako hornidurak	1.500,00 €
2311-226.99	Gizarte Ekintza. Bestelako hainbat lan	1.000,00 €
2316-226.99	Berdintasun zerbitzua. Bestelako hainbat lan	500,00 €
9202-221.99	Eraikin publikoak. Bestelako hornidurak	300,00 €
1534-221.99	Brigada. Inbentariatu ezin den tresneria	400,00 €
1534-226.99	Brigada. Bestelako hainbat gastu	2.000,00 €
1511-226.04	Hirigintza. Gastu juridikoak, notarioarenak, eta erregistrokoak	300,00 €
1511-226.99	Hirigintza. Bestelako hainbat gastu	300,00 €
4315-226.99	Tokiko merkataritza eta ostalaritza. Bestelako hainbat gastu	600,00 €
3301-226.99	Zelaieta Zentroa. Beste hainbat gastu	500,00 €
3401-221.11	Kirolaren arloko Adm. Orok. Hornidurak, tresnak eta erremintak	500,00 €
3381-226.06	Jaiak. Hainbat gastu. Jarduera Soziokulturalak	1.000,00 €
<b>Guztira.....</b>		<b>11.700,00 €</b>



Diruzaintzak kontuak emateko, ondasunak edo zerbitzuak jasotzen dituzten arloetako arduradunek dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituzte, eta faktura horiei "jasoa eta ados" edo "ados emandako zerbitzuarekin" jarriko zaie, dagozkion arloko arduradunaren edo teknikariaren sinaduraren bidez.

Erabilitako kopuruen justifikazioa, aurrerakina osatu den aurrekontu-ekitaldian bertan egingo da. Abenduaren 31rako funtsak ez badira guztiz inbertitu, itzuli egingo da geratzen dena eta atxikipenak balio gabetu egingo dira.

Fondoak berriro jartzeko ordainketa-aginduak, kopuru horiei, behar bezala justifikaturik, dagozkien aurrekontuko partidei aplikatuz emango dira, eta haien zenbatekoan, agintari eskudunak dagozkien kontuak onartu eta gero.

Egiten dituen eragiketa guztien kontabilitate osagarri zehaztuaz arduratuko da Diru-zaintza, fondo-horniduren kontabilitateko kontu korrontea kargatu egingo da jasotako aurrerakinengatik eta abonatu egingo da egindako ordainketengatik.

## **15. ARTIKULUA.- KONTU-HARTZAILETZAREN KONTROLA**

Organo kontu-hartzailearen barne kontrola Aurrekontua Betearazteko Arauaren Eranskinean arautzen da.

## **16. ARTIKULUA- DIRULAGUNTZAK**

1.- Toki araubideari buruzko legediarekin bat, gastuak bere eskumenen mugen barruan xedatzeko gaitasuna esleitua duen organoak berak izango du diru-laguntzak emateko eskumena.

2.- Diru-laguntzak eman baino lehen nahitaez egiaztatu behar da kreditu egoki eta nahikoa dagoela, diru-laguntza emateak dakartzan ekonomia arloko betebeharreri aurre egiteko.

3.- Dirulaguntzak izapidetzerakoan, ondokoak bete beharko dira: azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra eta erabil daitekeen indarrean dagoen gainontzeko araudia, Amorebieta-Etxanoko Udaleko Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza eta Gizarte Ekintza, Kirolak, Kultura, Hezkuntza eta Euskera arloetan dirulaguntzak emateko berariazko arauak (2008ko abuztuaren 6ko 149 zk.dun BAO). Ondokoak ere bete beharko dira:

- Amorebieta-Etxano udalerrian fatxadak eta estalkiak zaharberitu, konpondu eta berritzeko, oztopo arkitektonikoak kentzeko eta bizitegi eta ekipamendu erabilerako eraikinetan igogailuak jartzeko diru-laguntzen emakidari buruzko ordenantza berezia (2007ko abenduaren 27ko BAO, 251 zk.)

*Oharra: 2026ko aurrekontuak ez du jasotzen xede hau duen dirulaguntzarik*



- Nazioarteko kooperazio arloan Amorebieta-Etxanoko Udalak eman beharreko dirulaguntzen oinarri arautzaileen Ordenantza. (2010-08-06ko 150 BAO).

*Oharra: 2026ko aurrekontuak zuzeneko emakidako nazioarteko lankidetzaren arloko dirulaguntzak jasotzen ditu, arau honen 20. artikuluan arautzen dituenak (dirulaguntza izendunak).*

- Seme-alabak jaio edota adoptatzeagatik diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen berariazko Ordenantza (2019-04-30eko 81. BAO).
- Desgaitasuna duten adingabeen tratamendu eta programetarako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen berariazko Ordenantza. (2020-09-28ko 186. BAO)
- Amorebieta-Etxanon enplegua sortzea sustatzeko diru-laguntzak arautzeko oinarriak (2021-10-26ko 206. BAO)
- Eskolako materiala eskuratzeko diru-laguntzak emateko berariazko Ordenantza (2019-03-11ko 49. BAO)
- Amorebieta-Etxanon auzotaxi zerbitzua erabiltzeko dirulaguntzak emateko udal ordenantza. (2016-06-03ko 106. BAO)
- Gazteei etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza. (2018-09-25eko 185. BAO)
- Amorebieta-Etxanoko lehenengo etxebizitzetan oztopo arkitektonikoak kentzeko diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza. (2019-06-17ko 114. BAO)

*Oharra: 2026ko aurrekontuak ez du jasotzen xede hau duen dirulaguntzarik*

- Gizarte larrialdietarako laguntzen arloko araudia

4.- Emandako diru-laguntzen erakunde onuradunek derrigorrean bete beharko dituzte diru-laguntzak emateko oinarri gisa erabilitako xedeak, proiektuak eta jarduerak. Horiek guztiek betiere bat egin beharko dute indarrean dagoen antolamendu juridikoarekin.

5.- Erakunde onuradunek jarduera egin dela frogatu beharko dute, eta diru-laguntza ematea edo hartaz baliatzea xedatzen duen helburua bete dela ere bai.

6.- Onuradunak men egin beharko die diru-laguntza eman duen organoak egiten dituen egiaztapenei, eta eskatzen zaizkion argibide guztiak eman beharko ditu.



## **17. ARTIKULUA- INBERTSIOETARAKO KREDITUAK**

Lehenengo establezimendurako edo kapitaleko zerbitzu edo obretarako gastuak agintzeko, Udalbatzak aurretiaz behin betiko ontzat eman beharko du horiei buruzko Proiektu Teknikoa.

## **18. ARTIKULUA- UDALBATZAKO KIDEEN DIETAK ETA ORDEZKARITZA GASTUAK**

Dietak bertaratzeengatik:

Dietak ezartzen dira bertaratzeengatik, agintaldi bakoitzaren hasieran Udalbatzaren Osoko Bilkurak ezarritako zenbatekoetan, korporazioko kide anitzeko organoetako bilkuretara bertaratzeengatik, baldin eta ez badute arduraldi eskusibo edo partzialik korporazioko karguak betetzeengatik, dagokien PFEZaren atxikipenarekin. Dieta eta ordezkaritza-gastu horien % 60 bidaia- eta bidaia-gastuei dagokie.

Kalteordainak kargua egikaritzekoan izandako gastuengatik:

Justifikatzen diren lokomozio gastuak ordainduko dira zerbitzu edo kudeaketa ofiziala egiteko joan-etorriak direnean, dagokion Udal Organoak aurretiaz onetsi baldin baditu.

Karguen ordainsariak:

Oposizioko talde nagusiko zinegotziak eta arduraldi eskusiboko edo partzialeko erregimeneko karguek agintaldi bakoitzaren hasieran Udalbatzak ezarritako ordainsari gordinak jasoko dituzte, lege ezarritako mugen arabera. Hori guztia indarrean dagoen udal-aurrekontuko gastuen egoera-orriko 9121-100.00 partidaren kargura egingo da, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emanda egongo dira, eta sortzen diren ugazaben kuotak Korporazioak hartuko ditu bere gain.

Ordainsari hauek Udaleko langileen ordainsariak eguneratzen diren proportzio berean eguneratuko dira.

Era berean, bizi-aseguru bat sinatuko da, Udaleko langileen baldintza bereberekin, eta aldi baterako lan-ezintasunaren (LEI) kasuan, ordainsarien % 100 osatu arte konpentsatuko da.



### Udal talde politikoaren esleipen ekonomikoa

Urteko aurrekontuen kargura udal-talde politikoaren alde ezartzen den diru-esleipenak osagai finko bat izan beharko du, talde guztientzat berdina, eta beste osagai aldakor bat, talde bakoitzeko kide-kopuruaren arabera. Agintaldi bakoitzaren hasieran zehaztuko ditu korporazioko osoko bilkurak esleipenaren zenbatekoa eta arau-araubidea, aplikatu beharreko aurrekontu-araudian oro har ezarritako mugak errespetatuz eta muga horien barruan. Esleipenaren onuradun izan ahal izateko, udaleko talde politikoek atxikita dauden alderdi politikoaz bestelako identifikazio fiskaleko zenbakia lortu beharko dute, bai eta beren titulartasuneko kontu korrontearen zenbakia ere. Esleipen ekonomikoa ezin izango da erabili, inola ere, korporazioaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ordaintzeko edo ondare-izaerako aktibo finkoak osa ditzaketen ondasunak eskuratzeko. Talde politikoek esleipen ekonomikoaren kontabilitate espezifikoaren eraman beharko dute, eta korporazioko osoko bilkuraren esku jarriko dute, hark eskatzen duen guztietan.

### **19. ARTIKULUA- ALDI BATERAKO LANGILEAK**

Behin-behineko langileak, haien dedikazioa eta ordainsariak Udaltzaren Osoko Bilkurak ezarriko ditu agintaldi bakoitzaren hasieran, hori guztia indarrean dagoen udal-aurrekontuko gastuen egoera-erriko 9201-110.00 partidaren kargura. Langile horiek Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emanda egongo dira, eta sortzen diren ugazaben kuotak Korporazioak bere gain hartuko ditu.

Ordainsari hauek Udaleko langileen ordainsariak eguneratzen diren proportzio berean eguneratuko dira.

Era berean, bizi-aseguru bat sinatuko da, Udaleko langileen baldintza berberekin, eta aldi baterako lan-ezintasunaren (LEI) kasuan, ordainsarien % 100 osatu arte konpentsatuko da.



## 20. ARTIKULUA- DIRULAGUNTZA IZENDUNAK

-2319-481.01 AURREKONTU PARTIDA. GARAPENERAKO LANKIDETZA. DIRULAGUNTZA  
GARAPENERAKO LANKIDETZA

1. O.N.G. EDUCAS	20.000,00 €
2. ONG Amanecer Solidario	10.000,00 €
3. EUSKAL FONDOA	35.000,00 €
4. DERANDEIN FUNDAZIOA	18.000,00 €
5. KIDENDA	6.000,00 €
6. MUNDUAZ BLAI ELKARTEA	<u>3.000,00 €</u>
7. UNRWA AYUDA PALESTINA	20.000,00 €
	GUZTIRA: 112.000,00 €

-3261-481.00 AURREKONTU PARTIDA. HEZKUNTZAKO DIRULAGUNTZAK IRABAZ ASMORIK  
GABEKO ERAKUNDEEI

1. AMPA Larrea	26.000,00 €
2. AMPA Karmengo Ama	15.500,00 €
3. AMPA El Carmelo	12.500,00 €
4. AMPA Urritxe	12.500,00 €
5. Ikastola Andra Mari	14.300,00 €
6. Larrea Ikastola	6.000,00 €
7. Karmengo Ama Ikastetxea	7.500,00 €
8. FP Zornotza	5.000,00 €
9. IES Urritxe	4.000,00 €
10. Lauaxeta Ikastola	3.000,00 €
11. El Carmelo Ikastetxea	<u>4.500,00 €</u>
	GUZTIRA: 110.800,00 €



-PARTIDA PRESUPUESTARIA 2313-481.00 AURREKONTU PARTIDA. ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTENAK IRABAZ ASMORIK GABEKO ELKARTEA

1. Amorebieta-Etxanoko desgaituak integratzeko elkarte (AIDAE) (aisialdirako programak)
- |          |                     |
|----------|---------------------|
|          | <u>110.000,00 €</u> |
| GUZTIRA: | 110.000,00 €        |

-2314-481.00 AURREKONTU PARTIDA. ADINEKOAK. IRABAZ ASMORIK GABEKO ELKARTEAK.

1. Amorebieta-Etxanoko Hirugarren Adinekoen Elkarte...
- |          |                    |
|----------|--------------------|
|          | <u>18.000,00 €</u> |
| GUZTIRA: | 18.000,00 €        |

-2316-481.00 AURREKONTU PARTIDA, BERDINTASUN ZERBITZUA. IRABAZ ASMORIK GABEKO ELKARTEEI DIRULAGUNTZA

- |               |                   |
|---------------|-------------------|
| 1. ZORTALFEM  | 4.000,00 €        |
| 2. HAZI BERRI | 3.000,00 €        |
| 3. EREIN      | <u>3.000,00 €</u> |
| GUZTIRA:      | 10.000,00 €       |

-4315-481.00 AURREKONTU PARTIDA. TOKIKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA. TRANSF. IRABAZ ASMORIK GABEKO ELKARTEEI

1. Amorebieta-Etxanoko "Dendariak" elkarte:
- |                   |              |
|-------------------|--------------|
| a (Ohiko jarduna) | 28.000,00 €  |
| b (Amorebonoak)   | 150.000,00 € |
2. Amorebieta-Etxano Iraunkor Elkarte S.C.
- |                   |             |
|-------------------|-------------|
| a (Ohiko jarduna) | 4.000,00 €  |
| b (Amorebonoak)   | 10.000,00 € |
3. Durangaldeko Enpresen Ekimena (DEK)
- |          |                   |
|----------|-------------------|
|          | <u>8.000,00 €</u> |
| GUZTIRA: | 200.000,00 €      |

-3343-471.00 AURREKONTU PARTIDA. KULTURAREN SUSTAPENA. DIRULAGUNTZAK ENPRESEI

1. Hilero Zornotza, S.L. (Hilero Zornotza)
- |          |                    |
|----------|--------------------|
|          | <u>30.000,00 €</u> |
| GUZTIRA: | 30.000,00 €        |

-3351-471.00 AURREKONTU PARTIDA. EUSKERA. TRANSFERENTZI ARRUNTAK ENPRESEI

- |  |                    |
|--|--------------------|
| 1. Gertuko Koop. Elkarte Txikia (Anboto) | 18.000,00 €        |
| 2. INMEDIODAI                            | <u>15.000,00 €</u> |
| GUZTIRA :                                | 33.000,00 €        |



-4101-421.00 AURREKONTU PARTIDA. NEKAZARITZA SEKTOREA. TRANSF MANKOMUNITATE ETA PARTZUERGOEI

1. Urkiola Landa Garapenerako Elkartea

51.000,00 €

GUZTIRA : 51.000,00 €

-3301-481.00 AURREKONTU PARTIDA ZELAIETA. IRABAZ ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEI

IFK	ELKARTEAREN IZENA	ZENBATEKOA
G-01685569	Asociación Animalien Lagunak	11.000,00 €
G-95041158	A.C. Forjadores	600,00 €
G-48432942	Abes-kimu abesbatza	1.500,00 €
G-95542098	Amorebietako Udazken barria erraldoien konpartsa	600,00 €
G-95635223	Armendola Elkartea	3.000,00 €
G-95582128	Asociación tiempo libre Bizi Osasuntsu	750,00 €
G-48733752	Brioletak abesbatza	1.300,00 €
G-95317376	Etxanoko Andra Mari Berri	7.500,00 €
G-95560314	Larrako Abesbatza	1.300,00 €
G-95496147	Pintzelak	3.000,00 €
G-48734362	S.A.C.	5.000,00 €
G-48401459	Udabarri Dantza taldea	5.000,00 €
G-95759452	Asociación Uztargi Klik	2.000,00 €
G-95578720	Xuxurlariak abesbatza	1.300,00 €
G-48725436	Zornotza Mikologi elkarte	2.000,00 €
G-95417879	Zornotzako Otxotea	400,00 €
G-95938858	Zornotzako Musika Banda	30.200,00 €
G-95936522	Asociación Juravca Ruso – Lipovena	1.500,00 €
G-95916532	Zornotzako Afrikarren Elkartea (ZABE)	1.500,00 €
G-95957320	Asociación Cultural Islámica de Amorebieta-Etxano	2.700,00 €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>82.150,00 €</b>



-3381-481.00 AURREKONTU PARTIDA JAIK. TRANSFERENTZI ARRUNTAK XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEI

<b>AUZO/JAIA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Alakao_Santa Luzia auzoko Jaiak	550,00 €
Bixente Deuna auzokideen elkarteak_Arkotxa-Bediaga	1.700,00 €
Etxondoposeko jai batzordea	1.600,00 €
Bernako jai batzordea	2.400,00 €
Arkotxa-Bediagako Emakumeak	200,00 €
Asoc. Recreat. Belatxikieta	1.800,00 €
Bernagoitia auzoko jai batzordea	1.000,00 €
Bernagoitiako kultur elkarteak	500,00 €
Anaitasuna elkarteak_Boroa	5.000,00 €
Mozolotoki Txokoa_Epaltza	1.500,00 €
Bizkargi gogoratuz elkarteak	500,00 €
Dudea Jai_Etxanoko Jai Batzordea	8.500,00 €
Bidegania Eubako auzokideen elkarteak	2.900,00 €
San Miguel Pobera Ermiten elkarteak-Kofradia_Eustoa Santikurutz	500,00 €
Montorrako Lorentzo Deun elkarteak	2.300,00 €
Orue-Pasiotarrak_San Paulo Kurutzekoa parroquia	400,00 €
Orueko Kofradia	700,00 €
San Antonio	1.200,00 €
Bartolome Deuna auzo etxea	2.000,00 €
San Kristobal jaiak	700,00 €
San Isidro	600,00 €
San Miguel-Ermiten elkarteak-Kofradia_San Martin	500,00 €
Dudeako Beti Alai Elkarteak_San Miguel	3.500,00 €
San Miguel-Ermiten elkarteak-Kofradia_San Pedro Saratzu	500,00 €
Zornotzako koadrilen elkarteak (ZOKOEL) Jai Batzordea	9.000,00 €
Asoc. De comerciantes de Ogenbarrena HEZETASUNA	2.900,00 €
Larra auzo elkarteak	2.500,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>55.450,00 €</b>



-3411-481.00 AURREKONTU PARTIDA. KIROLA SUSTATZEA ETA BULTZATZEA. TRANSF ARRUNTA, XED GAB ERAK

<b>HIRUGARRENAREN IZENA</b>	<b>ZENBATEKOA €</b>
ZORNOTZA SASKIBALOI TALDEA	80.000,00
CLUB DE AJEDREZ ZORNOTZA	5.000,00
ZORNOTZAKO ERDU GUGAZ PILOTAN KIROL KLUBA	4.000,00
CLUB DE ARQUEROS OSTADAR DE ZORNOTZA	2.500,00
LARREA 400 ATLETISMO KLUBA	3.000,00
SOCIEDAD CICLISTA AMOREBIETA	50.000,00
SOCIEDAD DEPORTIVA AMOREBIETA	60.000,00
C.D. DE ATLETISMO ZORNOTZAKO KORRIKALARIZ	3.000,00
AMOREBIETA-ETXANOKO HERRENAK TRIATLOI KIROL KLUBA	2.000,00
CLUB DEPORTIVO UKABIDEA	2.500,00
PADELTZA ZORNOTZA KIROL KLUBA	1.500,00
CLUB UKABILAK ZORNOTZA	2.500,00
ZORNOTZA BOLOS CLUB	6.600,00
ASOCIACION PARA EL DESARROLLO DEL FUTBOL IKAS-TXIKI	6.000,00
AMOREBIETA ETXANOKO IGERIKETA TALDEA	5.000,00
ZORRONTZAKO FUTBOL TALDEA	9.000,00
LAGUN ONAK ZERBITZUAK	26.000,00
URGOZO ITURRIA TXIRRINDULARI ELKARTEA	3.000,00
ZORNOTZAKO URGOZO RUGBY KLUBA	6.000,00
CLUB DEPORTIVO ZORNOTZA	30.000,00
ZORNOTZAKO MENDI TALDEA	4.000,00
CLUB DEPORTIVO BETIGOL	3.000,00
SOCIEDAD ERREKAMENDI	8.000,00
CLUB DEPORTIVO LANCERO CLASIC	1.400,00
AMOREBIETA-ETXANO WATERPOLO	1.000,00
HOT SHOTS ETXANO KIROL KLUBA	1.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>326.000,00</b>



Izendun diru-laguntzen ordainketa aurreratuak egin daitezke justifikatu baino lehen, diruz laguntzen diren ekintzak gauzatu ahal izateko finantzazio bezala. Aukera hori diru-laguntza emateko erabakian jasota egon beharko da.

## 21. ARTIKULUA.- PRODUKTIBITATE-OSAGARRIA

Produktibitate-osagarria esleitzeko irizpideei dagokienean, arduradun hierarkikoei dagokie produktibitate-osagarriaren aplikazioaren balorazioa egitea. Balorazio honek eskatzen du funtzionario bakoitzak egindako lanaren ebaluazioa.

Produktibitate-osagarria onartu eta esleitzeko ondoko irizpideak ezarri dira:

1. **Errendimendu berezia** Irizpide honek saritu egiten du egindako lan kopurua, eta baita lanaren kalitatea. Lanpostuarekin lotutako inguruabar objektiboen arabera baloratuko da, esate baterako lan-zama eta zeregin aniztasuna, eta baita egokitutako helburuen arabera. Horretarako, funtzionario bakoitzaren lan indibiduala baloratu behar da.
2. Langileak lana egiterakoan agertutako ekimena, interesa eta eraginkortasuna Irizpide honen helburua honako hau da: lanpostuari dagozkion funtzioen garapenean sor litezkeen arazo puntualei emandako konponbide egokia haztatzea, bestela administrazio-unitateak emandako zerbitzuak geldiarazi edo atzeratuko lirakeelako, ebazteko azkartasuna eta eraginkortasuna, bai eta enpleguaren dedikazio eta entrega maila ere. Era berean, langileen ekimenak ere kontuan hartuko dira, baldin eta zerbitzua ematean benetako onurak ekartzen badituzte. Konpondutako arazoen kopurua eta horien garrantzia baloratuko dira, baita zerbitzuan egindako hobekuntzak ere.
3. **Aparteko zerbitzuak egin izana** Irizpide honen bidez, lanpostuari dagozkion eginkizunekin zerikusia izan arren, lanpostuaren edo unitatearen jarduera arruntari dagokionez normalean egiten ez diren lanak edo zereginak egin izana aitortu ahal izango da, ohiko lanaldiaren barruan egin ala ez. Zeregin horiek betetzen diren egun kopurua eta, hala badagokio, hartutako lanen bolumena edo konplexutasuna baloratuko dira.
4. Lanpostuari dagokiona baino erantzunkizun handiagoko funtzioak egitea Irizpide honen bidez zehaztuko da enplegatu publikoak bere gain hartu duen erantzukizuna, betetzen duen lanpostuari dagokiona baino handiagoa denean.



5. Beste lanpostu bateko eginkizunak betetzea, norberen funtzioekin batera Irizpide honen bidez, beste lanpostu bati dagozkion eginkizunak betetzea baloratuko da, lanpostu hori aldi baterako hutsik dagoenean edo azken horren titularra bajaran dagoenean.

## **22. ARTIKULUA- EREMUA ETA INDARRALDIA**

Aurrekontu Orokorra betearazteko arau hau 2025eko ekitaldian aplikatuko da. Araua aurrekontuaren zati banaezina da, eta indarrean egongo da aurrekontua indarrean dagoen bitartean, eta baita aurrekontua luzatzen denean ere, horrelakorik egingo balitz.

### **AZKEN XEDAPENA**

Arau honetan aurreikusita ez dauden kasuetan, orokorrean indarrean dagoen Toki Legedian eta gainontzeko arau aplikagarrietan xedatutakoa bete beharko da.

Araua aplikatzean sortu ahal diren zalantzei erantzuna emateko, Udaltzarak erabakitzen duena beteko da.

Amorebieta-Etxanon, 2025eko azaroaren 14ean.